



AINGERUEN ERREGIÑA  
ZERUKO IZAR ARGIA  
KRISTAUEN AMA GOZOA  
GUZAZ ERRUKI ZAITIA.

Olearsoko mendian  
Agertze miragarria,  
Kristauen probetxurako  
Egin zenduen Maria.  
Mesede audi orregatik  
Pozez dago erri guztia,  
KRISTAUEN AMA GOZOA  
GUZAZ ERRUKI ZAITIA.

Maitatutzen dezulako  
Animen inozenzia.  
Bi gazteri egin zizion  
Zu agertzeko grazia.  
Ordutikan zera bada  
Gure esperantza guztia.  
KRISTAUEN AMA GOZOA  
GUZAZ ERRUKI ZAITIA.

Esitua izandu zan  
Bein batez Ondarrabia,  
Zugan zeukan conpiantza  
Guadalupeko Maria.

## Ondarrabi'ko Zaindaria

### ITXAS GIZONA'REN LAGUNTZALLEA

Garaiturikan etsaiak  
Libratu zan gure erria.  
KRISTAUEN AMA GOZOA  
GUZAZ ERRUKI ZAITIA.

Etorriazan zure txera  
Errege tede gabia,  
Emen erakuts zuben  
Berak zeukan arrabia,  
Zuri egindako bnrlak  
Eman zigun pena aundia.  
KRISTAUEN AMA GOZOA  
GUZAZ ERRUKI ZAITIA.

Zeruko aingeruak eskuz  
Utzirikan Parroquia,  
Guadalupera ekar zuten  
Zure imagina garbia.

Aditutzera emanaz  
Au zala zure tokia,  
KRISTAUEN AMA GOZOA  
GUZAZ ERRUKI ZAITIA.

Kapatiboa jartzen badu  
Zugana fede guztia,  
Bereala puskatzentz  
Esku-ofietako burnia.  
Aitortuaz zu zerala  
Beraren libratzellia,  
KRISTAUEN AMA GOZOA  
GUZAZ ERRUKI ZAITIA.

Itsasoko perilleten  
Dabiltsanen errukia,  
Zuk dezu dudarik gabe  
Ama Birgiña Maria.

Izan zaitez bada beti  
Oientzat izar argia.  
KRISTAUEN AMA GOZOA  
GUZAZ ERRUKI ZAITIA.

Kristauen guzientzat zera  
Ama Errukigarria,  
Zuk sendatzen dezu miña  
Baita postutzen tristia.  
Orregatikan dizugu  
Jayera guztiz aundia,  
KRISTAUEN AMA GOZOA  
GUZAZ ERRUKI ZAITIA.

Belaunikatutzen gera  
Ama benegarria,  
Eta zugan jartzen degu  
Esperantzta txit aundia.  
Eskeñerik gure anima  
ta gure biotz guztia.  
KRISTAUEN AMA GOZOA  
GUZAZ ERRUKI ZAITIA.

AINGERUEN ERREGIÑA  
ZERUKO IZAR ARGIA  
KRISTAUEN AMA GOZOA  
GUZAZ ERRUKI ZAITIA.

*f. Nativitas est hodie Sancte Mariae virginis.*

*B. Cujus vita inclita cunctas illustrat Ecclesiam.*

### OREMUS

Famulis tuis, quæsumus Domine Cœlestis gratiae munus impertire: ut quibus Beata Virginis partus extitit salutis exordium, Nativitatis ejus votiva solemnitas pacis tribuat incrementum. Per Dominum nostrum, etc.

*Moderato*

Ainge - ru - en E - re - gi - ña, Ze - ru - ko i - zar ar - gi - a Kristau - en A - ma go - zo - a  
Gu - zaz e - fu - ki zai - ti - a. O - le - ar - so - ko men - di - an A - ger - tze mi - ra - ga - fi - a Kristau -  
en pro - be - txu - ra - ko E - gin zen - du - en, Mari - a; Me - se - de a - un - di - o - ne - ga - tik Po - poz -  
da - goe - fi guz - ti - a. Kristau - en A - ma go - zo - a Gu - zaz e - fu - ki zai - ti - a.

*Moderato*

Eriak

Ain - ge - ru - en E - re - gi - ña, Ze - ru - ko i - zar ar - gi - a

Organo

*Legato*

Kristau - en A - ma go - zo - a Gu - zaz e - ru - ki zai - ti -

a. — O - le - ar - so - ko men - di - an A - ger - tze mi - ra - ga - fi -

*rit.*

a — Kristau - en pro - be - txu - ra - ko E - gin zen - du - en, Mari -

(b)

a; — Me - se - de aun - dio - ne - ga - tik Po - zez da - goe - fi guzti - a. — Kristau -

*rit.*

en A - ma go - zo - a Gu - zaz e - ru - ki zai - ti - a. —

*rit.*